

2011ko Maiatzaren Lehena

SARRERA. Zentzua duen inork ezin zuen espero egoera hobetu egingo zela ezartzen ari diren politikak ikusita. Kontrara, langabezia gehitu da, jende gehiago dago baztertuta eta gizarte-prestazioak murritzten dituzte. Garai berean, enpresen eta banketxeen irabaziak gero eta handiagoak dira.

Botere politikoa bere nagusien lana egiten ari da, hots, botere ekonomikoak agintzen diona txintik esan gabe betetzen du, eta plantak egiten ditu agintzen duela sinestarazteko. Baino badakigu kapitalak agintzen duela, eta honek bere helburua lortzen du: botere politikoaren menpekotasunaz baliatzen da eskubide laboral eta sozialtan harrapaketan ibiltzeko. Paretik kendu nahi dute etekin gehiago lortzeko oztopo den edozer. Lehengo egoeran espekulazioaren etekinak lortu bazituzten, orain ez dute gutxiago nahi.

Eta guk zer egin behar dugu? Olde horri eutsi eta geure burua defenditu. Ozen eta ulertzeko moduan esan behar da berriro: soldatek eta eskubide sozialek ez dute zerikusirik gertatu den horrekin. Krisiaren jatorria aberastasunaren banaketa injustuan dago, kapitala metatzeko moduan eta espekulazioan. Argi esan behar da, eta horren arabera jokatu. Sindikalismoak inolako babesik ez dio eman behar politika horri.

Dirua pilatzen jarraitzeako aurrezki-kutxak pribatizatzen dituzte, erreforma laborala egin dute, pentsioen eta negoziazio kolektiboaren erreforma... Aurrekontuetako diru publikoa euren artean banatzen dute... Izan ere, horretarako baitira erreformak: kentzen digutena (eta jende gehiena txirotzen duena) eurek poltsikoratu ahal izateko.

1.- GOBERNUEK HARRAPAKETA AMETITZEN DUTE. HAU DA ARAZO NAGUSIA. Gobernuek baztertu egin dute oreka ezartzeko aukera oro. Txotxongilo moduan jokatzen dute. Nola gertatzen da harrapaketa? Defizita eta zorra gehitzen dute diru publikoa gastatuz, lotsagabe batzuk salbatzeko, eta defizit horixe aipatzen dute eskubide sozialak murritzeko aitzakia moduan. Helburu hain antisoziala gauzatzeko kapitalak (Bankak eta Enpresa Handiek) bere ordezkarriak politikan kokatzen ditu, bertatik bere interesen mesedetan lan egin dezaten. Hau ez da soilik krisi ekonomiko bat; krisi demokratiko eta politikoa ere bada: Klase politiko hori -ezbairik gabe- botere ekonomikoaren ordezkarri gisa agertzen da.

Bi pasadizo kontatzen dira. Lehena, Euskal Herriko herri batean gertatu zen, trantsizio hasieran. Herriko jaunxoek –Francorekin agintzen zutenek– bildu eta erabaki omen zuten familia bakotza alderdi politiko batean sartzea. Politika barnetik baldintzatu nahi zuten. Baita lortu ere; gehienbat lortu zuten. Bai, era berean, trantsizio hasieratik botere ekonomikoak politika bere babesean hartu zuen, onurak lortzeko. Zergatik gaude, bestela, Europako azken postuetan gizarte-gastuari eta presio fiskalari dagokionez?

Beste herri batean, berriz, traiez jantxitako gizon bat baserritar batengana joan eta esan omen zion: “pinudi hau erosiko dizut, hainbesteren truke”. Baserritarrak erantzun: “ez du hainbeste balio”. Baino besteak esan zion: bai, balio du, Iursail hau berkalifikatu egingo baita”. Orduan, lurjabeak esan zuen “hala bada, irabazia niretzat izango da”. “Ez -argitu zion trajedunak-, ez nauzu ongi ulertu. Neurea izatekotan berkalifikatuko da”.

Estatuko egunkari batek joan den asteluhenean azaltzen zuen banketxeek alderdi politiko handiei ematen dien pribilegiozko tratua, baldintza oso egokiak eta arrazoitu gabe kitatzen

diren maileguak alegia. Informazio berean Europako Kontseiluaren txosten bat aipatzen zen, eta ustelkeriaz ere hitz egiten zuen. Spainiako Bankua ere ustelkeria horren laguntzaile dela zioen, datuak gurutzatzea galarazten baitu, eta Kontseiluak 2009an egin zituen sei gomendioetatik bat ere ez omen da bete. Alderdiak basketxeekiko duten menpekotasuna honekin lotuta dago. Herritar bat kreditua ordaindu ezinik badago, etxebizitzak kentzen zaio, baina zorduna alderdi bat denean, bankuak zorra barkatzen dio. Zeren truke? Kapitalak esandakoa egitearen truke.

Jakingarria da ustelkeria galarazteko gomendiorik ez gauzatzea. Ez estatuan, ez Europako Batasunean. Gomendio hauek ez dira lutesleak, ez dira derrigor bete behar. A zer hipokrisia!

Politika menpean dute, etekin pribatua lortzeko. Hori izan da askoren negozioa. Negozio espekulatiboa, publikoa eta pribatua zer den nahasten duena... Eta orain? Krisiaz baliatzen dira, jende askoren beldurraz eta beharraz, eskutik datozen eta erabaki dute egindako txikizioa geuk ordainduko dugula.

HIPOKRISIA ETA MANIPULAZIOA NAGUSI. Hipokrisiaz eta manipulatz beren helburuak zuritzen dituzte eta ukatu egiten dute beste aukerarik dagoenik. Politikan hartu dute aterpea eta bost axola die zenbateraino hondatzen den haren irudia. Ez die axola, horren etekina eskuin muturrak ateratzen badu ere, hau baita demagogiaren artea hobekien erabiltzen duen indarra. Zoritzarrez, hori ari da Europako hainbat tokitan gertatzen, eta ez dago inongo erreakziorik.

Hipokrisia eta manipulazioa erabiltzen dira gizartean eztabaidea saihesteko. Badakite eztabaidea soziala beren asmoetarako oztopo bat dela, eta bahituta daukate horregatik. Nahiago dute gizarte ezjakin eta indibiduista bat. Kontrolpean dituzten komunikabideetan ez dute kritika, ez proposamen alternatiborik onartzen. Kapitalak hedabide asko menpean ditu (zuzenean, bereak direlako, edo zeharka, sartzen duten publizitateari esker), eta botere politikoak, beste batzuk (ETB da kasurik behinena; gero eta gehiago Esperanza Aguirreren Telemadriden antza hartzen ari da). Elkar hartzen dute sinetsarazteko beren aukera besterik ez dagoela.

Horrelako gizarte batek defizit demokratiko gehiegi ditu. Gehiegi, isilik egon eta ezikusiarena egiteko.

DEFIZIT PUBLIKOA, MANIPULAZIOAREN ADIBIDE. Bai, gezurretan ari dira esaten dutenean defizit publikoa gizarte-gastuaren ondorio dela, eta Europako Batasunean bilatzen dute beren politikak egiteko aitzakia. Horretarako egin dute Euroaren edo Lehiakortasunaren Ituna, gobernu bakoitza aldez aurretik menpeko bihurtuta, murrizketak ezartzeko agenda errazagoa izan dadin.

Ez da hori; defizit publikoaren zergatiak hauetan dira:

- Ogasunek eragin duten deskapitalizazio fiskala, errenta altuei eta kapitalari zergak jaitsi baitizkiete. 8.300 milioi € gehiago bil litezke azken urteotako erreformak indargabetuta eta Europako batez besteko presio fiskal berdina ezarrita. Baino nahiago izan dute dirua kapitalaren esku utzi, honek espekulatzeko erabil dezan.
- Enpresentzako laguntzak. Estatuko patronala da -bertokoa bezalaxe- Europako diru-laguntza handienak jasotzen dituena, bizkarroiena. Patronal honek etekinak lortzeko bide erraza dauka: prekarietatea areagotu eta zerga gutxiago ordaintza.
- Basketxeentzako amairik gabeko laguntzak. Diru publikoa gaiztagin sozialei ematen diete. Hau eskandalu bat da. Basketxeek diru publikoa %1eko interesean hartzen dute, eta %6, 7 eta are 9an mailegatzen dute. Hau lapurreta da.
- Beharrezko ez diren gastuekin lotuta dago: AHT, Pasaiako kanpo-portuan egin nahi dutena...

Gezurretan ari dira esaten dutenean enplegua beren kezka dela. Ez da hala. Enplegua aitzakiatzat erabiltzen dute edozertarako. Ezartzen ari diren doitze eta murrizteko politikek ekonomia erreala deprimiztearekin batera enplegua suntsitzen dituzte. Hori badakitenez,

gezurra beste biderik ez zaie geratzen. Murrizketak erabakitzetan ari den klase politikoa manipulazioaren profesional bihurtu da, ezkutatu egin nahi baitu enpresa handien interesen menpeko dela.

Esaten dugunean gobernuak kapitalaren esanetara ari direla, agintzeko aukera luketen indar guztiak aipatzen ari gara. Hauxe da egoera latz honetako ezaugarri nagusia. Zarata mediatikoaz eta hauteskundeetarako antzezpenez harago, bat datoak. Aurrekontuak, erreformak, murrizketak, enpresa eta banketxeentzako laguntzak... guztien artean onartzen dituzte. Katastrofe politikotzat jo izan dugu politika ekonomiko eta sozialaren herritarren sozialdemokrazia eta neoliberalismoa bereizi ezinik egotea. Ezinezko izatea Berlusconi, Sarkozy, Merkel, Cameron, Zapatero, López, Sanz, JL Bilbao edota Olano bereiztea... Guztiek ere, bakoitzak bere esparruan, bide-orri berdinari jarraitzen diote.

2.- ELKARRIZKETA SOZIALAREN KARIKATURA. Hau menpekotasunaren ondorio bat da. Patronalak nahi duen guztia eskuratzeko du gobernuengandik. Hori hala izanik, "elkarrizketa sozial" esaten dioten horretan geratuz gero onartu beharra daukazu bidelagun hutsa zarela; funtsezko edozer -den-dena, alegia- patronalak eta gobernuak beste nonbait erabakitzetan dutela; eta, horrenbestez, txorimaloa besterik ez zarela. Bat ere parte hartze sindikalik gabe erabaki dituzte azken 35 urteetako aurrekonturik injustuenak (konsultarik gabe), erreforma laborala (inposatura), pentsioen murrizketa (aldebarrekoak), fiskalitatea (aurredemokratikoa eta antisociala)... Dena, hitz batean.

Zer egiten dute erakundeok, dirua banatzeaz gainera? Kontratu prekarioak diru publikoz finantzatzea ere onartu dute. Bai, enpresek Gizarte Segurantzako kuotarik ez ordaintzea, aldi baterako lanaldi partzialeko kontratuak eginez gero. Zur eta lur uzteko moduko da halako astakeriak babes sindikala lortu izana. Harrizketa, eta elkarrizketa sozialaren benetako mugak non dauden adierazten duena. Muga hauek Nafarroan nabarmenak dira. Moderna Planean, zeina patronalak, gobernuak, CCOO eta UGTk sinatu baitute, argi geratzen da sindikatu horiek zenbateraino makurtzen diren patronalaren eta gobernuaren interesetara.

Beste adibide bat EAEko Kontseilu ekonomiko-sozialaren daukagu. Bilakaera demografikoari buruzko txosten bat aurkeztu du, eta ondorioetan patronalaren eta gobernuen jarrerak zuritzen ditu. Ezta lerro bat ere fiskalitateaz edota gizarte-gastua gehitu beharaz.

EAEN EZ DAGO JOKO-ARAURIK. Jakina da organoetan baiezkoa lortze aldera Confebask eta Lopez Lehendakariak joko-arau demokratikoak haustea erabaki zutela, euskal gehiengoei indarra kentze aldera. Parte hartze instituzionaleko organoak gobernuaren eta patronalaren neurriak daude eratuta, eurentzat ari dira lanean, are gehiago joko-araurik ez badago.

3.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ERREFORMA. Non eta zer negoziatzen dugun aukeratzea da gure erabakitzeko euskal esparrua, langileona. Gai honetan euskal alderdiek berriro patronalaren interesen arabera jokatzen badute, eskubide hori azkenean zalantzan jarriko da. CONFEBASK eta CEN Albaceteko patronalaren modukoak dira. Galdera simpleak egiten dituzte: Nork emango dit gehiago? Spainiak, eskubide laboralak murrizterakoan...? Orduan espaniolak dira. Beste aldera, euskal ogasunek, zergak jaitsi eta oporraldi fiskalak oparitzean...? Kasu honetan, euskal patronala da. Baino patronalaren benetako aberria emaitza-kontua da.

Patronalak erreforma zertarako nahi du? Gure ekintza kolektiboa ahultzeko, lan-baldintzak merkatzen; CCOOek eta UGTk, berriz, ZENTRALIZATZEN jarraitzen eta legeen bidez ordezkaritzaren monopolio gisako zerbaite lortzeko. LOAPA sindikal bat ezarri nahi dute, Estatuan, sektore-hitzarmenatik, gu negoziazio kolektiborako eskubiderik gabe uzteko.

Aspaldian erabaki zuten beren eredu sindikala burokratikoa eta bertikala izango zela... Orain, krisiaz baliatuta, eredu horretarako abantaila lortu nahi dute. Beste errealitate sindikalak baztertzen dituen eredua. Ez gabiltza Primo de Riveraren diktaduratik urrun.

Nork ukatuko du zentralizatzeko apustuak gure lan-baldintzak okertzen dituela? Inork ez; gure jendeak ondo asko daki hori.

Non eta zer negoziatu nahi dugun erabaki nahi dugu, aitoritu egin behar digute euskal gehiengoek erabakitzetan dutena errespetatzeko eskubide demokratikoa.

Negoziazio kolektiboari buruzko beste ondorio bat: indar sindikala erakusten dutenak errespetatuko dituzte soilik; horregatik ezinbestekoa da lana elkarrekin egitea, indarrak batzea. Negoziazio kolektiboko erronkak ahaztu gabe:

- Negoziazio kolektiboa aberastasuna banatzeko tresna bat da;
- ez dugu nahi lan-baldintzak enpresaburuaren aldebaurreko erabakiz ezartzea,
- eta prekariatateari aurre egin behar zaio, lan-baldintza duin batzuk lortzeko.

Negoziazio kolektiboa horretarako da.

4.- PATRONALAREN XANTIA. Orain soldatei eraso diete. Honetarako gobernuaren laguntza daukate.

Ikusi duzue zenbateko babesa ematen dioten IBERDROLAri, nola aipatzen duten eredu gisa. Enpresa hau kexu da ‘tarifa-defizita’gatik; urtebetean tarifik %10 igozko baimena eman diote, eta 2010ean (soilik estatuko jardunarekin) 1.200 milioi euroko etekinak lortu ditu; aldiz, pertsonaleko gastua guztira 677 milioi dira. IBERDROLA da Zapaterori aholkua ematen dioten 40 enpresa bat, edo Lopezekin gauza bera egiten duten 25etako bat; Jose Luis Bilbaok, Agirrek edota Olanok ere bere aholkua jasotzen dute... Eurek agintzen dute.

Beste adibide bat: badira betetzen ez diren hitzarmenak, Eraikuntzakoa kasu. Sektore honetan ere agerian geratzen da interes ekonomiko eta politiko arteko elkar aditzea: Administrazioek herri-lanak esleitzen dizkiete eraikuntzako enpresa handiei, eta hauek mugarik gabeko azpikontrata kateak erabiltzen dituzte. Ondorioa, lan-egun amaigabeak, istripu larriak, hildakoak eta soldato miserableak. 12 orduko lanegunak, orduko 7 €an. Honek nor kezkatzen du? Patronala ez, noski. Bainaz Ezta Jaurlaritza, gobernu eta aldundiak ere. Helburu bera dute guztiak: enpresei diru asko, kopuru itzelak irabazteko aukera ematea, edozein baldintzatan. Hau gure arazo da.

Pribilegiozko posizio horretatik patronalak negoziazio kolektiboan eta lan-baldintzetan xantaia egitea erabaki du. Eta xantaia hori borrokatzeari guretzat lehentasun bilakatu da: Lan sindikala antolatu behar da, aurre egin.

Honek oihaneko legea dirudi, eta guk salatu egiten dugu herri-administrazioek nola sustatzen duten. Gauza bakarra egiten dute, ugazaben posizioa defenditzeko behar den guztia erabakitzeari: gehiegizko zerbitzu minimoak ezartzea, Ertzaintza jazarpenerako tresna bihurtzea, harik eta beren oinarrizko eskubideak erabiltzen ari diren langileen kontra gaizkile bailiran jo arte...

5.- ALTERNATIBARIK BADAGO; NOSKI BAIETZ... Bainaz ez dira eztabaidean aintzat hartzen, nahi ez dutelako. Zein dira alternatibak?

- **ABERASTASUNA BANATU.** Aberastasuna esku gutxitan pilatzea (eta bere ondorioa, bazterketa eta pobrezia hedatzea) gizartearentzat arriskutsua da. Gerriko estutu behar dugula dioten horietxek soldatu eta pentsio itxuragabeak ordaintzen dizkiete beren buruei, eta beren enpresek etekin marka guztiak hausten dituzte. Ez omen dago dirurik. TELEFÓNICAk 10.000 milioi €ko etekinak iragarri ditu, kaleratzeak egiten ari den bitartean. IBERDROLA... Honelako beste hamaika adibide eman genezake.
- **ABERATSEI ZERGAK ORDAINARAZI, SOLIDARITATEA FINANTZATZEKO.** Hau funtsezko gaia da. Ez dute nahi aberatsek zergak ordaintzerik... Aurrakoa egiten dute: Zergak jaitsi, hobariak eta diru-laguntzak onartu, gastu fiskala gehitu... Hori aski ez eta gutxi batzuren onerako ezarritako opor fiskalak guztiak artean ordaintzea nahi dute. Nahikoa da, ezin da arlo publikoa gehiago deskapitalizatu! Politika fiskala ere krisi

honen sorburuan dago. Eztabaidea hor kokatu behar da. Hego Euskal Herrian 8.000 milioi gehiago bil litezke, baldin eta presio fiskala Europako batez bestekoaren parean balego. Gizarteko solidaritateak politika fiskala erabate aldatzea eskatzen du.

- **DEFIZITA, ZERBITZU PUBLIKOAK, INBERTSIOAK ETA GIZARTE-GASTUARI EUSTEKO.** Enpleguaren aldeko politikak behar ditugu, gizarte-gastu handiagoa... eta administrazioek honekiko asko egin dezakete. Defizita beharrezkoa da honetarako. Bada, Madrilek asteon euskal administrazioentzako defizit maila erabaki du (%1,3 2011 eta 2012rako eta %1 2013 eta 2014rako). Horrek esan nahi du aurrez murriztuta zegoena are gehiago gutxitu behar dela. Euskal alderdiak erabaki honekin bat al dato? Hala balitz, kontutan izanik zein politika fiskal egiten ari diren, emaitza jakina da: defizitik gabe, behar adina zerga bildu gabe, murrizketa gehiago izango dira. Esan bezala, ados badaude, aitortu beharko lukete beste inoren erabakiak betetzeko bakarrik daudela. Baino kontu hauek berton erabaki behar ditugu. Nola ezkontzen da autogobernuarekin horren garrantzitsua den gai batean agertzen duten utzikeria?
- **BANKA-SEKTORE PUBLIKOA SUSTATU.** Finantza-erakundeek eragin duten nahastearen ostean ezin da onartu diru publikoa erruz jaso eta krediturik ez ematea. Nahi zutena egiten utzi zieten, eta berdin jarraitu nahi dute. Aurrezki-kutxek publikoak izan behar dute, kontrol eta helburu publikoekin. Ezin zaie utzi banketxe pribatu moduan jokatzen. Ez dago eskubiderik eurek ekarri duten hondamendiaren ondoren beren helburua finantza-merkatu pribatizatuagoa eta kontzentratuagoa izatea; krisiaren ardura dutenak are botere ekonomiko handiagoa lortzea.
- **LAN DUINA. PREKARIETATEARI EZ. SOLDATAK DEFENDITU.** Bidezkoa delako, eta eragingarria. Datuek erakusten dute aberastasunaren banaketan soldatek pisua galdu dutela, enpresen etekinen mesedetan. Badago aukera, eta gainera enplegua defenditzeko balio du. Soldatak jaitsiz gero are enplegu gehiago galduko da. Hau begibistakoa da. Soldatak igo behar dira enplegua defenditzeko.
- **GASTU SOZIALA GEHITU.** Bazterketa eta pobrezia borrokatzeko politika sozialak. Baino horren ordez gurutzadak antolatzen dituzte laguntza publikoak jasotzen dituztenak errudun gisa ager daitezen. Hau ezin onartuko da, eta oso arriskutsua. EAEn guztira Gizarte-Larrialdietarako Laguntzetara eta Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzetara 350 milioi euro bideratzen dira. Opor fiskalak 750 milioi kosta izan ziren. Benetan ez al dago dirurik?
- **EKINTZA SOZIAL, EKONOMIKO ETA POLITIKORAKO TRESNAK.** Lan Harremanen eta Babes Sozialeko Euskal Esparrua da. Hau garatu nahi dugu politika sozialak gauzatzeko. Gaur "Spainiaren batasuna"ren izenean politikarik neoliberalenak erabakitzentzat dituzte. Eta estatu uniformea aldezten dutenek merkatuaren legea defenditzen dute, inongo mugarik gabe. Botere politiko eta ekonomikoa behar dugu, irtenbide solidario bat gauzatu ahal izateko.

BORROKAREN BEHARRA. Lo ote gauden galdetzen digute. Bai, hori nahiko lukete, gu lo egotea, eurek erasoa jotzen duten bitartean. Gehiengo sindikalak bere ALTERNATIBA agendari eutsiko dio (bai baitauzkagu alternatibak), baita MOBILIZAZIOAri ere (ez baitago beste biderik).

GEHIENGO SINDIKALA EGITEN ARI DENA AINTZAT HARTU BEHAR DA. Aukera izatekotan, soilik ahalegin kolektiboa eginez, elkarrekin lan eginez izango da. Lan sindikal ona eginez gero, gure praxi sindikalean solidaritatea txertatzeko gauza bagara, egoera horrek eskatzen duen borroka sindikala egiteko modua izango dugu. Ezin dugu errealitatea saihestu; borrokan jarraitu behar dugu.

SINDIKALISMOAREN BALIOA AITORTU. Garai latzak dira hauek, zaitasun handiz beteak. Baino zaitasunak ezin gaitu eraman amore ematera, eskuinera joan eta erasotzen digutenei arrazoi ematera. Zaitasun horrek are zentzu handiagoa ematen dio gure lanari, eta balio handiagoa gure borrokei.

Gora Euskal Herriko Langileria!

Gora Euskal Herria Askatuta!

Adolfo Muñoz, ELAKo idazkari nagusia

Bilbon, 2011eko Matizaren Lehena

1º de MAYO de 2011:

INTRODUCCIÓN. Nadie con sentido común podía esperar que con las políticas que se están imponiendo la situación fuera a mejorar. Al contrario: están provocando más paro, más marginación y recortan prestaciones sociales. Todo eso sucede al mismo tiempo que los beneficios de las empresas y la banca siguen creciendo.

El poder político *"habla por boca de ganso"*; esto es, cumple sin rechistar lo que manda el poder económico y se dedica a hacer teatro para aparentar que es él quien manda. No, manda el capital y obtiene lo que busca: utilizar la subordinación del poder político para saquear los derechos laborales y sociales. Quieren eliminar obstáculos que les impiden obtener más beneficios. Venimos de una coyuntura con beneficios especulativos y no se resignan a menos.

¿Y nosotros? Tenemos que resistir y defendernos. Hay que repetir, alto y claro: los salarios y derechos sociales no son responsables, en modo alguno, de lo que ha sucedido. La causa de la crisis hay que buscarla en la injusta distribución de la riqueza, la acumulación de capital y la especulación. Hay que decirlo de forma clara y actuar en consecuencia. El sindicalismo no debe dar ningún apoyo a esta política.

Para ese objetivo –seguir acumulando- privatizan las Cajas, hacen la Reforma Laboral, la de pensiones, la de negociación colectiva... se reparten entre ellos el dinero público de los presupuestos... Para eso son las reformas; para asegurar que lo que nos quitan (provocando un empobrecimiento general) vaya a parar a sus bolsillos.

1.- LOS GOBIERNOS CONSIENTEN EL SAQUEO. ES EL PRINCIPAL PROBLEMA. Los gobiernos han renunciado a cualquier equilibrio. Actúan como unas marionetas. ¿Qué es saquear? Aumentan el déficit y la deuda gastando dinero público para salvar a unos sinvergüenzas y usan ese aumento del déficit para decir que hay que reducir los derechos sociales. Para ese objetivo tan antisocial, el capital (la Banca y la Gran Empresa) coloca a sus representantes en la política, para que desde ahí, sirvan a sus intereses. No estamos solo ante una crisis económica, es una crisis democrática, una crisis política: Esa clase política aparece –sin matices- como representante del poder económico.

Cuentan dos anécdotas. La primera en un pueblo de HEH. Al inicio de la transición los mandamases del pueblo –los que mandaban con Franco- se reunieron y decidieron que cada familia se afiliase a un partido distinto. Querían condicionar desde dentro la política. Y lo lograron. En términos generales, lo lograron. Desde el inicio de la transición el poder económico tuteló la política en beneficio propio. ¿Cómo se puede entender si no que sigamos estando a la cola de Europa en gasto social y presión fiscal?

En la segunda cuentan que, en otro pueblo de HEH un señor trajeado se acercó a un baserritarra y le dijo “le compro ese pinar y le doy tanto dinero”. El baserritarra le contestó “no vale tanto”. A lo que el del traje añadió “si; si lo vale porque ese terreno se va a recalificar”. Bueno, respondió el aldeano, “si se recalifica me quedaré yo con la ganancia”. “No -le aclaró el del traje- no me ha entendido bien: Se va a recalificar si es mío”.

Un diario estatal hacía referencia el pasado lunes al trato privilegiado de la Banca con los grandes partidos políticos: condiciones favorables y cancelaciones de créditos sin justificación. Se refería a un Informe elaborado por el Consejo de Europa y hablaba de

corrupción. Decía que el Banco de España colabora en esa corrupción al impedir cruzar datos y denunciaba que de las seis recomendaciones que ese Consejo hizo en el 2009 no se ha cumplido ninguna. El nivel de subordinación de los partidos a la Banca tiene que ver con esto. Mientras que a un ciudadano que no puede pagar el crédito se le hipoteca el piso, cuando el deudor es un partido, el Banco le perdona las deudas. ¿A cambio de qué? A cambio de que los partidos hagan lo que ellos piden.

Es sintomático que con respecto a estas recomendaciones para atajar la corrupción no pase nada. Ni en el Estado, ni en la UE. Son –les llaman- recomendaciones no vinculantes. ¡Qué hipocresía!

Control de la política para obtener beneficios privados. Ese ha sido el negocio de muchos. Negocios especulativos abusando de la confusión entre lo público y lo privado... ¿Y ahora? Ahora, aprovechan la crisis, el miedo y la necesidad de mucha gente, vuelven a aparecer unidos y han decidido que seamos nosotros los que paguemos los platos rotos.

LA HIPOCRESÍA Y LA MANIPULACIÓN INVADE CASI TODO. Con hipocresía y manipulación justifican sus fines y niegan la existencia de alternativas. Se han instalado en la política y no les importa el descrédito que conlleva. No les importa, aunque la beneficiada sea la extrema derecha que es la que mejor se maneja en el arte de la demagogia. Eso, desgraciadamente, está sucediendo en varios lugares de Europa sin que exista la más mínima reacción.

Hipocresía y manipulación para evitar el debate social. Saben que el debate social supone un límite a sus actuaciones y lo tienen secuestrado. Prefieren una sociedad ignorante e individualista. Impiden el acceso de la crítica, de las propuestas alternativas, a los medios de comunicación que controlan. El capital controla muchos (directamente, porque son suyos o indirectamente, a través de la publicidad que contratan) y el poder político controla otros (empezando por **ETB** que cada vez más se parece a la Telemadrid de Esperanza Aguirre). Se confabulan para hacer creer que no hay otras alternativas que las suyas.

Una sociedad así... tiene demasiados déficit democráticos. Demasiados, como para permanecer callado y mirar para otro lado.

EL DÉFICIT PÚBLICO, EJEMPLO DE MANIPULACIÓN INFORMATIVA. Sí, mienten cuando afirman que el déficit público es consecuencia del gasto social y buscan cobertura para sus políticas en la Unión Europea. Para eso es el conocido como Pacto por el Euro o de la Competitividad, para que, previa sumisión de cada gobierno, la agenda de los recortes sea más sencilla.

No; el déficit público tiene que ver con...

- La descapitalización fiscal que han realizado las haciendas al bajar los impuestos a las rentas altas y de capital. Se podrían recaudar 8.300 millones de € más si se echaran atrás las reformas que han impuesto en los últimos años y se igualara la presión fiscal media europea. Han preferido dejar el dinero en manos del capital para que éste especule.
- Tiene que ver con las ayudas y subvenciones a empresas. La patronal en el Estado –y también aquí- es la más subvencionada de Europa, la más parásita. Una patronal acostumbrada a obtener beneficios en base a imponer precariedad y que le bajen los impuestos.
- Tiene que ver con el agujero sin fondo que suponen las ayudas a la banca. Están dando dinero público a delincuentes sociales. Es un escándalo. Los bancos reciben dinero público al 1% y están prestando al 6, 7, incluso al 9%. Es un atraco.
- Tiene que ver con gastos innecesarios como el TAV, el que quieren realizar en el Puerto Exterior de Pasajes...

Mienten cuando dicen que les preocupa el empleo. No. El empleo es la excusa, la coartada que les vale para todo. Las políticas de ajuste, de recortes, que están aplicando deprimen la economía real y destruyen empleo... Lo saben y solo les queda hacer una cosa: mentir. La clase política que está decidiendo los recortes se ha convertido en una profesional de la manipulación para ocultar su subordinación a los intereses de las grandes empresas.

Hay que destacar que cuando hablamos de los "gobiernos al servicio del capital" estamos hablamos de todos los que tienen opción de gobernar. Esa es la característica esencial en esta dura coyuntura. Más allá del ruido mediático y las poses electorales, están de acuerdo. Los presupuestos, las reformas, los recortes, ayudas a empresas y banca... los aprueban entre todos. Hemos calificado como catástrofe política que los ciudadanos no sean capaces de diferenciar, en el ejercicio de la política económica y social, la socialdemocracia del neoliberalismo. Que no distingan a Berlusconi, Sarkozy, Merkel, Cameron, Zapatero, López, Sanz, JL Bilbao, Olano... Todos, cada uno en sus competencias, aplican la misma hoja de ruta.

2.- EL DIÁLOGO SOCIAL ES UNA CARICATURA.

Es una consecuencia de la subordinación. La patronal obtiene todo lo que quiere directamente de los gobiernos. A partir de esa realidad si te quedas en eso que llaman "diálogo social" tienes que aceptar que eres un mero acompañante; que todo lo importante – absolutamente todo- se decide entre patronal y gobiernos fuera; en definitiva, que eres el tonto útil de la película. Fuera de cualquier participación sindical se deciden los presupuestos más injustos de los últimos 35 años (sin consulta), la Reforma Laboral (impuesta), la de pensiones (unilateral), la fiscalidad (predemocrática y antisocial)... Todo es todo.

¿Y qué hacen esos órganos además de repartirse dinero? Llegan a acordar que se financie con dinero público la contratación precaria. Sí, que las empresas no paguen las cuotas a la Seguridad Social por los contratos temporales a tiempo parcial. Es inaudito que esa barbaridad cuente con apoyo sindical. Inaudito y clarificador de los límites objetivos del diálogo social. Esos límites se ven en Navarra. El Plan Moderna, firmado por patronal, Gobierno, y CCOO y UGT, refleja el grado de subordinación de esos sindicatos a los intereses de patronal y gobierno.

O como ha sucedido en el CES de la CAPV. Han presentado un informe sobre evolución demográfica para, en sus conclusiones, justificar las posiciones que defienden la patronal y los gobiernos. Ni una sola referencia a la fiscalidad o a la necesidad de incrementar el gasto social.

EN LA CAPV, SIN REGLAS DE JUEGO. Es un hecho confirmado que, para obtener el sí en los órganos, Confebask y el Lehendakari López acordaron romper las reglas de juego democráticas y quitar eficacia a las mayorías vascas. Los órganos de participación institucional, mucho más sin reglas de juego, están hechos y trabajan para el gobierno y de la patronal.

3.- REFORMA DE LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA. Elegir dónde y qué negociamos es nuestro ámbito vasco de decisión, el de los trabajadores y trabajadoras. Si en este tema los partidos vascos vuelven a ir de la mano de los intereses de la patronal ese derecho se terminará cuestionando. CONFEBASK y la CEN son como la patronal de Albacete. Se preguntan... ¿Quién me da más? ¿España en recorte de derechos laborales...? Pues es española. ¿Las Haciendas Vascas al bajar los impuestos y regalar vacaciones fiscales...? Pues vasca. Pero, ser lo que se dice ser, es "de su cuenta de resultados".

La patronal quiere la Reforma para debilitar nuestra acción colectiva, para empobrecer las condiciones de trabajo y CCOO y UGT, para profundizar en la CENTRALIZACIÓN y obtener, vía ley, una especie de monopolio representativo. Quieren una LOAPA sindical, para que en el Estado, desde los convenios sectoriales de Estado, puedan decidir dejarnos sin derecho a la negociación colectiva.

Optaron hace tiempo por un modelo sindical burocrático, vertical... Ahora pretenden, aprovechando la crisis, sacar ventaja para su modelo. Un modelo que excluye otras realidades sindicales. No estamos lejos de la dictadura de Primo de Rivera.

¿Quién niega que la apuesta por la centralización empeora nuestras condiciones de trabajo? Nadie lo puede negar, nuestra gente lo sabe muy bien. Queremos decidir donde y qué negociamos, queremos que se reconozca el derecho democrático a respetar lo que decidan las mayorías vascas.

Una conclusión más sobre negociación colectiva: Solo van a respetar a quienes demuestren fuerza sindical, por eso es esencial que colaboremos, que sumemos fuerzas. Sin olvidar los retos de la negociación colectiva:

- La negociación colectiva es un elemento de distribución de riqueza,
- No queremos que las condiciones de trabajo se decidan unilateralmente por el empresario
- Y hay que hacer frente a la precariedad para lograr unas condiciones de trabajo dignas.

Para eso es la negociación colectiva.

4.- LA PATRONAL CHANTAJEA. Ahora cargan contra los salarios y la jornada laboral. Y para ese objetivo cuenta con el apoyo de los gobiernos. Habéis visto cómo apoyan a IBERDROLA y lo ponen como modelo. Una empresa que habla de "déficit tarifario", a la que se le suben las tarifas en un año el 10% y que en el 2010 ha obtenido (solo en su actividad en el Estado unos beneficios de 1.200 millones de euros mientras sus gastos totales de personal son de 677 millones. IBERDROLA es una de los 40 grandes empresas que aconseja a Zapatero, y de los 25 que hace lo propio con López, y con José Luís Bilbao, con Aguirre, con Olano... Son los que mandan.

Otro ejemplo... Hay convenios que no se cumplen, como el de la Construcción. Un ámbito en el que se aprecia –una vez más- la connivencia de intereses económicos y políticos. Las Administraciones adjudican obra pública a grandes empresas de la construcción que utilizan un sin fin de subcontratas. A partir de ahí, jornadas interminables de trabajo, accidentes graves, muertos y salarios de miseria. 12 horas de trabajo al día a 7 € la hora. ¿A quién le importa esto? A la patronal, por supuesto que no. Tampoco a los gobiernos, ni a las diputaciones. Les une una cosa: facilitar a las empresas que ganen mucho dinero, muchísimo dinero, en cualquier condición. Es nuestro problema.

Es desde esa posición de privilegio desde la que la patronal ha decidido chantajear a la negociación colectiva, a las condiciones de trabajo. Y ese chantaje se convierte en prioridad para nosotros: Hay que organizar el trabajo sindical y hacerles frente.

Denunciamos la colaboración de las Administraciones en esta nueva Ley de la selva. Su papel se resume a poner todos los medios a su alcance para defender la posición patronal: la determinación abusiva de servicios mínimos, el papel de persecución de la Ertzaintza para la que un grupo de trabajadores que ejercen derechos fundamentales colectivos sea considerado un grupo de delincuentes...

5.- HAY ALTERNATIVAS; CLARO QUE LAS HAY... Solo que no forman parte del debate porque no quieren. ¿Alternativas?

- **DISTRIBUCIÓN DE LA RIQUEZA.** La acumulación de riqueza en menos manos (y su derivada, el incremento de marginación y la pobreza) es un peligro para la sociedad. Quienes dicen que nos tenemos que apretar el cinturón se colocan sueldos y pensiones astronómicas y sus empresas baten récord de beneficios. ¿Quién dice que no hay dinero? TELEFÓNICA, 10.000 millones de € en beneficios y despidos. IBERDROLA... Hay muchos más ejemplos como esos.

- **GRAVAR LA RIQUEZA PARA FINANCIAR LA SOLIDARIDAD.** Es un tema central. No quieren gravar la riqueza.... Hacen lo contrario: Les bajan los impuestos, les aprueban bonificaciones y subvenciones, gastos fiscales... y quieren que las vacaciones fiscales que beneficiaron a unos pocos las paguemos a escote entre todos. ¡Basta de descapitalizar lo público! La política fiscal ha colaborado en el origen de esta crisis. Hay que centrar el debate ahí; es esencial. En Hego Euskal Herria se podrían recaudar más de 8.000 millones de € si la presión fiscal media fuera la europea. La solidaridad social exige un cambio radical en la política fiscal.
- **RECURRIR AL DÉFICIT PARA MANTENER LOS SERVICIOS PÚBLICOS, LAS INVERSIONES Y EL GASTO SOCIAL.** Necesitamos políticas a favor del empleo, de mayor gasto social... y las Administraciones tienen mucho que hacer en ese terreno. Y para eso es necesario recurrir al déficit. Pues bien, Madrid ha decidido esta semana el nivel de déficit para las Administraciones Vasca (1,3, 1,3, 1, y 1% para 2011, 2012, 2013 y 2014 respectivamente). Supone que hay que recortar sobre lo ya recortado ¿Están de acuerdo los partidos vascos con esa decisión? De ser así, y teniendo en cuenta qué política fiscal se está haciendo el resultado está cantado: sin déficit y sin fiscalidad, más recortes. Si están de acuerdo deberían reconocer que solo son meros gestores de decisiones ajenas. Esas decisiones se deben tomar en Euskal Herria. ¿Con qué nivel de autogobierno se corresponde hacer dejación de una decisión tan fundamental?
- **POTENCIAR LA BANCA PÚBLICA.** Tras el desbarajuste provocado por las entidades financieras es inadmisible que reciban ingentes cantidades de dinero público y que el crédito no funcione. Se les ha dejado hacer y quieren seguir haciendo lo que les viene en gana. Las Cajas de Ahorros deben ser públicas, con control y fines públicos. Hay que impedir que se comporten como la banca privada. No hay derecho a que de este desastre, que ellos han provocado, quieran salir con un mercado financiero más privatizado y concentrado; que salgan con más poder económico los responsables de esta crisis.
- **TRABAJO DIGNO, NO A LA PRECARIEDAD y DEFENDER SALARIOS.** Porque es justo y eficaz. Los datos demuestran que los salarios han perdido posiciones en el reparto de la riqueza a favor de los beneficios empresariales. Hay mucho margen y, además, es eficaz para defender el empleo. Si se reducen los salarios se destruirá más empleo. Es de Perogrullo. Hay que subir salarios para defender el empleo.
- **MÁS GASTO SOCIAL.** Políticas sociales para combatir la marginación y la pobreza. En vez de eso se plantean cruzadas para colocar como culpables a los perceptores de ayudas públicas. Es inaceptable y muy peligroso. En total en la CAPV se destinan a las Ayudas de Emergencia Social y Renta de Garantía de Ingresos 350 millones de €. Solo las vacaciones fiscales representaron 750. ¿De verdad que no hay dinero?
- **INSTRUMENTOS DE ACCIÓN SOCIAL, ECONOMÍCOS Y POLÍTICOS.** Es el Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social. Queremos su desarrollo para llevar adelante políticas sociales. Hoy en nombre de la "unidad de España" se están planteando las políticas más neoliberales. Y quienes defienden la uniformización defienden las leyes del mercado sin límites. Exigimos poder político y económico y que se ponga al servicio de una salida solidaria a la crisis.

HAY QUE LUCHAR. Nos están preguntando si estamos dormidos. Nos quieren dormidos mientras van al ataque. La mayoría sindical va a seguir con su agenda de ALTERNATIVAS (porque las tenemos) y de MOVILIZACIÓN (porque no hay otra vía).

HAY QUE DAR VALOR A LO QUE LA MAYORÍA SINDICAL ESTÁ HACIENDO. Solo colectivamente, solo trabajando juntos, tenemos oportunidades. Si trabajamos sindicalmente bien, si somos capaces de conjugar la solidaridad en nuestra práctica sindical, podemos librarnos

la lucha sindical que estos hechos demandan. Sin mirar para otro lado, hay que seguir luchando.

HAY QUE DAR VALOR AL SINDICALISMO. Es una etapa muy dura, de mucha dificultad. Pero esa dificultad no nos puede llevar a claudicar a dar la razón a los que se han desplazado a la derecha y nos atacan. Esa dificultad da más sentido a nuestro trabajo, más valor a nuestras luchas.

Gora Euskal Herriko Langileria!

Gora Euskal Herria Askatuta!

Adolfo Muñoz “Txiki”, secretario general de ELA